

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2020 Foru Dekretua, azaroaren 17koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko mahastizaintzako eta sagardoa egiteko ustiatzietarako laguntzen aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileak, bai eta 2020rako deialdia ere

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo zuen aste batzuk lehenagotik COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoera.

Geroago, martxoaren 14an, 463/2020 Errege Dekretua argitaratu eta indarrean jarri zen. Dekretu horren bidez, alarma-egoera ezarri zen, eta luzapenak egin ondoren, ekainaren 21era arte iraun zuen.

Hala ere, berriro ere 2020ko urrian beste alarma-egoera bat berrezarri da pandemia horren bilakaera kaltegarriaren ondorioz; horretarako, urriaren 29an 926/2020 Errege Dekretua argitaratu da, birusa hedatzeari aurre egiteko mugikortasun-murrizketa handiak jasotzen dituen.

Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak, eskuordetutako agintaritzaren eskuduna den aldetik, osasun publikoaren arloko prebentzio-neurri espezifikoak ezartzen ditu hainbat gune, lokal eta jardueratan, bereziki ostalaritzako, jatetxeetako, txokoetako eta elkarte gastronomikoetako establezimendu eta zerbitzuetan. Joan den azaroaren 6an neurri berriak hartu dira mugikortasuna eta harremanak are gehiago mugatzeko, besteak beste, ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduak ixtea.

Iraganeko eta oraingo egoera horiek eragin handia izan dute nekazaritza-sektorean, eta ondorio ekonomiko nabarmenak izan dituzte azpisektore batzuetan; izan ere, mahastizaintza eta ardogintza dira lehen deskribatutako neurriek ostalaritzarako, jatetxeetarako eta turismorako, batez ere enologiarako, ekarri dituzten murrizketa garrantzitsuen kaltetuetako bat. Hartutako neurriek eta merkataritza-kanalen itxierak beherakada nabarmena eragin dute ardoaren salmentan, merkatuak desitxuratu dituzte eta mahatsaren prezioei eragin diete kanpaina honetan.

Era berean, mahastizaintzako ustiatzietatik osasun-agintariek onartutako neurriak txertatu behar izan dituzte lan-arriskuen prebentziorako planetan, emaitza ekonomikoak buruzko ziurgabetasun handiaren erdian. Hori bereziki arazotsua izan da, bai espergura eta desniete kanpainen, bai mahats-bilketaren garaian; izan ere, ustiatzietatik kostu handiak ordaindu behar izan dituzte osasun-neurriak betetzeko, bai beraiantzat, bai sasoikako langileen kolektiboarentzat, garrantzi eta bolumen handikoak baitira Arabako mahastizaintza-eremuetan. Horrez gain, ekintza bereziak egin behar dira ostatu komunitarioetan eta garraioetan, osasun-arauak betetzera egokitzeko, lan-osasuna bermatze aldera.

Bestalde, kanpaina honetako egoera horrekin batera, ohikoa ez den intzidentzia izan da mahastian mildiu gaixotasuna izatea. Horren ondorioz, Arabako mahastizainek ahalegin osagarri handia egin behar izan dute tratamenduetan, uzta salbatzeko eta mahatsaren osasuna zaintzeko, eta fungizida-tratamenduak aplikatzearen ondoriozko ekoizpen-kostuak nabarmen handitu dira.

Hori guztia dela eta, ustiatzietatik emaitza ekonomikoek eragin handia izan dute, bai mahatsa erosten duten upategiek eskaria murriztu dutelako, eta, ondorioz, mahatsaren prezioa jaitsi egin delako, bai mildiuek eragindako ekoizpen-kostuak handitu direlako eta araudiak ezarritako laneko segurtasun-neurrietara egokitu direlako.

Egoera horren aurrean, Arabako Foru Aldundiak egoera koiuntural hori arintzeko neurriak hartzen jarraitzea erabaki du, Arabako mahastizaintza- eta sagardo-sektoerako laguntza-lerro bat ezarriz, l. eranskinean ezarritako oinarri arautzaileekin bat etorriz.

Laguntza horiek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EE) Erregelamenduak ezarritako minimis erregimenari heltzen diote. Erregelamendu horrek 20.000,00 eurora mugatzen du onuradun batek araubide horren pean hiru urteko epean jaso dezakeen laguntza.

Laguntza-lerro horiek Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 921/2016 Erabakiaren bidez onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan sartuta ez daudenez, bidezkoa da plan hori aldatzea.

Nahitaezko txostenak ikusita, Nekazaritzako Foru Diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko mahastizaintzako eta ardogintzako ustiategie-tarako eta sagardoa egiten duten pertsonentzako laguntzen oinarri arautzaileak onartzea, foru dekretu honen l. eranskinean ageri den testuaren arabera.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoko mahastizaintzako eta ardogintzako ustiategie-tarako eta sagardoa egiten duten pertsonentzako 2020rako laguntzen deialdia onartzea, xehetasun hauen arabera:

– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia: 10 egun natural, dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan (Laguardia, Lapuebla de Labarca errepidea z/g), hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa.

– Kreditu-erreserba: 725.000,00 euro, 40.1.04.44.00.479.00.01 partidaren kargura. “Mahastizaintzako eta ardogintzako ustiategiei eta sagardoa egiten dutenei laguntzeko plana - Neurriak”, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako gastuen aurrekontukoa. (Xedapen erref.: 20.1.20.105.4253/000).

Deialdi hau izapidetuko bada, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuan.

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena. Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 921/2016 Erabakiaren bidez onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eranskina (abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiaren bidez aldatua) aldatzea, eta bertan sartzea foru dekretu honen eranskin gisa erantsi den edukia.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu honek ALHAOn argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^ª ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE



I ERANSKINA

1. artikulua.- Xedea.

1.1. Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko mahastizaintzako eta ardogintzako ustiategiei eta sagardo-sagarrik egiten dituzten pertsoneri laguntzak emateko aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileak ezartzea.

1.2. Laguntza hauek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EE) Erregelamenduan ezarritako minimis erregimenari heltzen diote. Erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 107. eta 108. artikuluko nekazaritza-ekoizpenaren sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta Batzordearen 2019ko otsailaren 21eko 2019/316 (EB) Erregelamenduak aldatu zuen.

2. artikulua.- Onuradunak.

2.1. Oro har, dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun izan ahalko dira mahatsondoak landatzen dituzten azalerak dituzten Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza-ustiategi baten titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak eta sagardoa egiten dutenak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

2.1.1 gutxienez 6 hektareako eta gehienez 50 hektareako mahasti-azalera izatea Arabako Errioxan kokatutako nekazaritza-ustiategietan, eta gutxienez 3 hektareako azalera izatea Arabako Txakolina/Txakoli jatorri-deituraren eremuan kokatutako ustiategien kasuan. Sagardoa egiten duten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroan izena emanda egon beharko dute, jarduera horretan.

2.1.2. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea

2.1.3. Era guztietako zerga-betebeharrak egunean izatea.

2.1.4. Onuraduna ez egotea Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean.

2.1.5. Sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik ez izatea, ezta debeku horrekin zigortuta ez egotea ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

Sozietate zibilaren, ondasun-erkidegoaren edo titulartasun partekatua kasuan, 2.1.2 baldintza egiaztatu beharko da ustiategiaren titularrarentzat gainerako bazkideentzat.

3. Artikulua.- laguntzen modua eta zenbatekoa

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bat izango da laguntza, zenbateko eta tarte hauekin:

3.1 Arabako Errioxan kokatutako ustiategiak:

- Ustiategiko lehenengo 15 hektareek 100 euro/ha jasoko dute.
- 15 hektareatik 25era bitarteko azalerak 75 euro/ha jasoko du.
- 25 ha eta 50 ha arteko azaleretarako, 50 euro/ha izango da zenbatekoa.



3.2 Arabako Txakolina/Txakoli de Alava jatorri-deituraren eremuan kokatutako ustiategiak:

- Ustiategiko lehenengo 5 hektareek 175 euro/ha jasoko dute.
- 5 ha-tik 20 ha-ra arteko azalerak 125 euro jasoko ditu hektareako.

3.3 Sagardogileak: 1.500 euroko zenbateko finkoa jasoko dute eskatzaile bakoitzeko.

4. artikulua.- Laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura.

4.1. Laguntza horiek emateko prozedura lehia-araubidean izapidetuko da. Hala ere, laguntza horien xedea kontuan hartuta, ez da balorazio-irizpiderik ezarriko, eta hainbanatzera jo beharko da, baldin eta kreditu-erreserbak ez badu baimentzen ezarritako moduluen arabera gehieneko zenbatekoa ematea eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei.

Kasu horretan, zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira, partidan dagoen kreditu-erreserba kontuan hartuta.

4.2. Aurreko artikuluan aipatutako azalerari dagokion laguntza emateko, eskabidea aurkeztu beharko da, Arabako Lurralde Historikoko Ustiategien Erregistroan inskribatutako mahastizaintza-azaleraren arabera. Sagardogileei zuzendutakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagai-gintzako Industrien Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen ondoren emango da.

4.3. Laguntzak eman bezain laster ordainduko dira.

5. artikulua.- Eskabideak aurkezteko lekua, epea eta modua.

5.1. Laguntzen deialdiak honako hauek jasoko ditu:

- Laguntza-eskabideak aurkezteko lekua eta epea.
- Azpisektore bakoitzerako gordetzen den aurrekontu-partida edo -partidak eta kreditua.

5.2. – Laguntza-eskabidea inprimaki normalizatuan aurkeztuko da (II. ERANSKINA).

6. artikulua.- Izapideak, ebazpena eta jakinarazpena.

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, azukre-erremolatxaren eta patataren ekoizleei lotutako espedienteak Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuak bideratuko ditu. Ardi-/ahuntz-azienden ustiategiei lotutako espedienteak Abeltzaintza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta Balorazio Organo Kolegiatuak proposatuta, dagokion foru-organoak ebatziko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera, zeinaren ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen baitio. Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hura arautzen duen araudiaren arabera, hargatik eragotzi gabe aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea.

6.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, administrazio-isiltasuna ezetsitatzeko joko da.

7. Artikulua.- egiaztapenak.



Nekazaritza Sailak behar diren egiaztapenak egingo ditu onuradunei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Baldintza horiek betetzen ez badira, laguntza jasotzeko eskubidea galduko da, bai eta jasotako zenbatekoak eta legezko interesak itzuli ere, indarreko araudiaren arabera bidezkoak diren gainerako ekintzei kalterik egin gabe.

8. artikulua. – Kide anitzeko balorazio-organoa.

Laguntza hauen balioespen-organo kolegiatua jarraian adierazten diren pertsonak edo haien ordezkariak osatuko dute:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko Burutza
- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari atxikitako pertsona bat
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuko Burutza.

9. artikulua.- bateragarritasuna.

9.1. Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio batzuek helburu bererako ematen dituztenekin.

9.2. Nolanahi ere, eta aurreko paragrafoan aurreikusitako bateragarritasuna gorabehera, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EE) Erregelamenduan (Batzordearen 2019ko otsailaren 21eko 2019/316 (EB) Erregelamenduak aldatua) ezarritako minimis araubidearekin bat etorritik, minimis neurriengatik laguntzek, hau bezalakoak, ezin dute 20.000,00 eurotik gorakoa izan onuradun bakoitzeko hiru urteko epean. Kasu horretan, laguntzak gutxitu egingo dira, gehieneko muga ez gainditzeko.

10. artikulua.- Onuradunen ondorioak eta betebeharrak.

Foru dekretu honetan jasotako laguntzen onuradunek honako arau hauek bete beharko dituzte: Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamendu aplikagarria.

Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontu Auzitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dieten informazio guztia eman beharko dute.

11. artikulua.- laguntzak berrikustea.

Nolanahi ere, laguntzak berrikusiko dira, baldin eta laguntzak emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira

12. Artikulua.- itzulketak eta zuzenketak.

Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere laguntzaren xedea betetzat jotzen bada.

Onuradunak ez baditu betetzen emandako laguntzari buruz foru dekretu honetan eta onesteko ebazpenean ezarritako baldintzak edo xedea, edo ez baditu betetzen horretarako eskatutako baldintzak, galdu egingo du emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta, hala badagokio, Arabako Foru



Ogasunari itzuli beharko dizkio jasotako zenbatekoak, bai eta aplikatzekoak diren legezko interesak ere. Hori guztia Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoaren arabera bidezkoak diren ekintzei kalterik egin gabe.

Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, dagozkien lege-ondorioetarako.

Nekazaritzako diputatuaren foru agindu bidez zehaztuko da laguntza osorik edo zati batean itzuli edo gutxitu behar den, ikuskapen- edo kontrol-txostena, itzultzeko edo gutxitzeko proposamena eta onuradunaren entzunaldia ikusita.

Itzulketa osoaren edo partzialaren prozedura independentea izango da Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitako arau-hausteengatik has daitekeen zehapen-prozedurarekiko.



II ERANSKINA

MÍNIMIS LAGUNTZEN ESKAERA

Ardogintzarako mahatsa Txakoli-mahatsa Sagardogileak

36/2020 Foru Dekretua, azaroaren 17koa

Nekazaritza ustiapen Zk:	<input type="text"/>	NAN/NIF:	<input type="text"/>
Izen abizenak:	<input type="text"/>		
Helbidea:	<input type="text"/>	ea:	<input type="text"/>
Udala :	<input type="text"/>	PK	<input type="text"/>
Ordezkaria (Izen abizenak):	<input type="text"/>		

NAN/NIF: Telefonoa:

AITORTZEN DUT:

Minimis laguntzen erregimenarekin erlazioatuta eta 2018, 2019 eta 2020 denboraldiei dagokionez:

- Ez dut laguntzarik jaso.
 Minimis laguntzak jaso ditut (koadroa bete).

Data	Entitatea	Kontzeptua	Zenbatekoa

- Ez nagoela sartuta itzulketa- edo zehapen-prozeduran.

- Ez dudala laguntza edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera ukatzen didan zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako ezgaitzen nauen legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

- Aurreko datu guztiak egiazkoak direla, eta konpromisoa hartzen dudala egiaztatzeko behar diren egiaztagiria aurkezteko, bai eta, hala badagokio, dagozkion egiaztapenak onartzeko ere, eta agintaritza eskudunak egiten dituen kontrolak erraztuko ditudala, laguntza emateko baldintzak egiaztatzeko.

- Agintari eskudunak eskatuta, bidegabe kobratutako laguntza itzultzea.

BAIMENA EMATEN DIOT

- Nekazaritza Zuzendaritzari, laguntza izapidetzeko eta ordaintzeko behar den informazio guztia biltzeko, bai eta eskatzen diren baldintzak betetzen diren ebaluatzeko ere (Ogasunarekin/Gizarte Segurantzarekin egunean egotea, eta, hala badagokio, EAEko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan inskribatzea).

.....(e)n, 20.....ko.....(ren) ...(ea)n

Eskatzailearen sinadura:

NANa: